

# «Dantza munduan pertsonak pertsona dira»

Asier Uriagereka bizkaitarrak Londreseko Royal Ballet-en dantzatuko du

**T**eknikoa ezezik kementsua. Gogo askea izanik neketsua zaio diziplina betetzea. Hala ere, jakitun dago dantzaren munduan zerbait lortzekotan lanari ekiteko premia duela. Dagoeneko, lan horri esker, Lausanneko Prixak urtero eskaintzen dituen lau beketatik bat lortu du eta prest dago Londreseko Royal Ballet-eko partaide izateko.

G. AGIRRE / BILBO

**EGUNKARIA.**— Zerekarri dizu Lausanneko saria irabazteak?

**ASIER URIAGEREKA.**— Batetik, Londreseko Royal Ballet-era joateko txartela eskuratzea, eta beste alde batetik, orain arte egin dugun —maisua eta biok— lan gogorraren emaitzak ikustea.

**EGUNKARIA.**— Nola ikusten duzu orain azken lau urteetako lana eta, batez ere, ahalegin pertsonala?

**URIAGEREKA.**— Azken lau urte hauetan lan asko egin dugu buruarekin eta gorputzarekin. Gehienbat buruarekin, pertsona oso askea naiz eta gustukoa dut gauzak nire erara egitea. Horregatik, uneoro maisua nire gainean egon da gauzak ondo egiten irakasteko.

Dantzatzeko irrikitan zaude, zure lana erakusteko gogo duzu baina, beste alde batetik, beti esaten dizute 'itxaron'. Itxaron apur bat. Jarraitu ikasten, oraindik gaztea zara eta denbora duzu. Horregatik, zaila izaten da lan eta lan egitea emaitzik ikusi gabe, baina dantza holakoa da.

Buruarekin ere lan asko egin behar duzu, lanean zaudenean zure denbora tarte eduki behar duzu, ordu pare bat, bakarrik egoteko, ikasi duzuna ondo aztertu eta zureganatzeko.

**EGUNKARIA.**— Lausanneko saria eskuratu ondoren, nahi zenuen eskolara joateko aukera izan duzu. Stuttgart edota Anbese-ko eskoletako proposamenak izan dituzu. Zergatik Londreseko Royal Ballet?

**URIAGEREKA.**— Londreseko balleta izan dut gustukoena beti. Errepertoriozko konpainiarik handiena eta onena da. Beraz, honelako konpainia batera joateko aukera daukazunean ezin gal dezakezu. Bestetik, Royal Ballet-en lagunak ditut eta beti daukazu esku bat nori heldu.

**EGUNKARIA.**— Maiatzean Londresera zoaz, badakizu han zer aurkituko duzun?

**URIAGEREKA.**— Momentuz, eskolan sartuko naiz eta lanean jarraituko dut Royal Ballet-eko estiloa hartzeko. Konpainia bakoitzak estilo bat dauka eta Royal Ballet-ek bere estilo propioa eta zehatza dauka. Royal Balletek

«Niri idaztea edo hitz egitea asko kostatzen zait, baina dantzaren bitartez nire sentimenduak espresa ditzaket»

estilo klasikoa du eta niri gehien gustatzen zaidana da. Klasikoa da baletaren mundu handiena. Klasikoa da baletaren izarra.

Londresera heltzen naizenean lehenenik irakasle guztiak ezagutu nahi ditut eta gero beren nortasunarekin lan egin, horrela askoz gehiago ikasten duzu. Apurka eta lan eginez, Royal Balleten estiloa neureganatuko dut eta hori lortu ondoren, konpainian sartzen ahaleginduko naiz.


**EGUNKARIA.**— Zergatik erabaki zenuen dantzara dedikatzea?

**URIAGEREKA.**— Dantza betidanik gustatu zait. Dantzatzeko aske sentitzen naiz. Nire sentimenduak eta emozioak espresa ditzaket. Niri idaztea edo hitz egitea asko kostatzen zait, baina dantzaren bitartez espresa naiteke.

Dantzaren munduan, pertsonak pertsona dira. Ez dira orde-nadore bat edo liburu bat. Pertsonak dira eta beren sentimenduak kanporatzen dituzte, hori polita da, ezta? Bestetik, konpainia batean sartzen zarenean mundu guztiko jendea ezagutzen duzu eta hori oso aberasgarria da.

**EGUNKARIA.**— Hamalau urterekin, OHO bukatu berria, ez da zaila ikasketak alde batera utzi eta dantzara bakarrik dedikatze-ko erabakia hartzea?

**URIAGEREKA.**— Ikasteko beti daukazu denbora. Hoge, hogeita bost edo hogeita hamar urterekin



Dantza betidanik gustatu zaiola dio dantzari bizkaitarrak. XOUSE SIMAL

ikasten hasi ahal zara. Baina, dantzatzeko denbora pasatu egiten da. Momentu bat heltzen da zure gorputzak ez duela gehiagorik ematen, baina buruak bai. Beraz, erabaki bat hartu behar duzu, orain edo inoiz ez.

**EGUNKARIA.**— Mungia bezalako herri txiki batekoa izatea eta mutila izatea gaintitu beharreko erronkak izan al dira?

**URIAGEREKA.**— Bai, gaintitu beharreko oztopoak. Niri jendeak esaten zidana belarri batetik sartu eta bestetik irteten zitzaidan. Entzun egiten badiezu, azkenean, gogo kentzen dizute eta ez duzu ezer egiten. Horregatik,

ez diet sekula entzun.

Orain, berriz, Lausanneko saria irabazi ondoren, jendeak zera esaten du, 'Beitu, gizaixo bat ematen zuen eta!'.

**EGUNKARIA.**— Zer izan da Jon Beitia zuretzako?

**URIAGEREKA.**— Nire maisua izan da. Dena eman dit eta ni, nire aldetik, dena ematen saiatu naiz. Gehienbat teknika irakatsi dit baita nire burua bere lekuan jar-zen ere bai. Hau da, teknika irakatsi eta nortasuna landu dit. Horregatik joan behar dut orain Royal Balletera estilo bat hartzeko.

Dantzari on batek sutsua izan behar du bere sentimenduak es-

«Erakunde publiko- en aldetik ez dago ia laguntzarik. Ematen dituztenak oso txikiak dira, ez dute ezertarako balio».

presatzeko baina, aldi berean, epela izan behar du. Nortasun hori lan asko egin eta errieta asko jasoz lortu dut.

**EGUNKARIA.**— Zer izan da urte hauetako politena eta gogorrena?

**URIAGEREKA.**— Gogorrena azken urtea, eta politena ere azken urtea. Konturatu naiz nolako pertsonalitatea daukadan, gehienbat ezagutu egin dudalako nire burua.

**EGUNKARIA.**— Nola ikusten duzu dantzaren egoera Euskal Herrian?

**URIAGEREKA.**— Oso txarto dago. Hiruzpalau maisu bakarrik daude jendea prestatzen dutenak. Bestetik, eskolako onena izan behar duzu, bestela maisua ez da zutaz ohartzen. Eta azkenik, erakunde publikoen aldetik ez dago laguntzarik, daudenak oso txikiak dira eta ez dute ezertarako ematen. Beraz, honelako lehia-keta bat irabazten ez baduzu, Europatik zehar bidaiak egin behar dituzu dauden konpainiei zeure burua eskainiz.

Dena dela, gaur egun jendeak 'mama punta-mama ballet' egiten du. Hau da, jendeak baleta ikasten du ikasteagatik. Eskolara datoz, barre pixka bat egiten dute eta amak oso pozik. Baina, oso jende gutxi dago prest ikasketak utzi eta baletara dedikatze-ko. Hemen baletari ez zaio duen ga-rrantzia ematen.

XOUSE SIMAL